

ELKARTEEN FOROA

2023 jarduera txostena



2024 otsaila

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundia



Edukien aurkibidea

0.	Aurkezpena.....	3
1.	Gipuzkoako Elkartearen Foroa.....	4
	Zer da	
	Zertarako	
	Nortzuk	
	Nola funtzionatzen du	
2.	Foroaren jarduera 2023an.....	8
	Parte hartu duten eragile eta pertsonak	
	Edukiak eta emaitzak: sintesia	
	Zehatzago, gako batzuk	
3.	Jarraipena 2024an	22

O

Aurkezpena

Dokumentu honek Herritarren Partaidetzarako Gipuzkoako Elkarten Foroak 2023an garatutako prozesua eta jarduera laburbiltzen ditu.

Aurreko urteko txostenen eskemari eutsiz, dokumentu honek honako hauek biltzen ditu:

- Elkarten Foroaren hasierako informazioa.
- 2023rako definitutako lan-programa.
- Garatutako lan-prozesua, jarduketa eta emaitza garrantzitsuenen xehetasunekin.
- 2024an jarraitzeko oinarria.



1 Gipuzkoako Elkarteen Foroa

Zer da

Gipuzkoako Elkarteen Foroa elkartzeko eta lankidetzan aritzeko gunea da, eta herritarren parte-hartzea bultzatzen duten lurraldeko elkarteek eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak osatzen dute.

Ikaskuntzak eta tresnak partekatzeko espazioa da, kultura parte-hartzailea garatzeko eta elkarren arteko ezagutza eta lankidetzak sustatzeko. Ekosistema likidoa eta malgua da, eta beraz Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten erakundeentzat ateak zabalik ditu.

Elkarteen Foroak 2020. urtearen amaieran ekin zion ibilbideari, lurraldeko hainbat elkarte egindako eskaerari erantzunez. Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak 2019-2023 Herritarren Partaidetzarako Programan jaso zuen eskaera hori.

2019-2023rako Herritarren partaidetzarako Programa

46. ekintza Elkarteen Foroa

Ekintza horren bidez, Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzen duten erakundeen bilgune bat sortu nahi da. Helburu hauek izango ditu: batetik, hausnarketak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta Gipuzkoako herritarren elkartearen esperientziatik ikasteko espazio bat sortzea, kultura parte-hartzaileagoa sustatzeko asmoz; eta, bestetik, herritarrek parte hartzeko komunitate mailako prozesuak bultzatzea.

2023. urtea Foroaren ibilbideko hirugarren urte osoa izan da; gainera, ekainean legegintzaldia aldatu zen.

Zertarako

Hasierako proposamenean, hauek dira Herritarren Partaidetzarako Elkartearen Fororako planteatzen diren helburuak:

- **Elkarren ezagutzan sakontzea:** elkarteak haien artean, eta elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundia, batzen dituen abiapuntu hartuta: herritarren parte-hartzearen sustapena eta harekiko konpromisoa.
- **Lurraldean egiten den elkartegintza** eta horrek gizartean komunitatea eraikitzeko egiten duen ekarpena **aitortzea, sozializatzea eta ikusaraztea.**
- **Herritarren parte-hartzeari buruz gogoeta egitea eta sakontzea,** eta Gipuzkoan eta Gipuzkoatik kanpo bultzatzen diren parte-hartze ereduak buruz.
- Erakundeek herritarren parte-hartzearekin lotutako **prestakuntza-beharrizanak** identifikatzea eta erantzun partekatua ematea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte-hartzearen arloan dituen eta eskaintzen dituen tresnak ezagutaraztea: Foru Araua, Herritarren Partaidetzarako Programa, dirulaguntzak eta beste batzuk. Eta **sinergiak bilatzea** lotutako helburuak dituzten beste espazio batzuekin –Aldundiaren barruan eta kanpoan–.

Nortzuk

Askotariko prozesu, proiektu eta ekimenen bidez herritarren parte-hartzea bultzatzen duten Gipuzkoako elkarteek parte hartzeko **espazio irekia** da Elkartearen Foroa, eta haiekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuak ere parte hartzen du.

Funtzionamenduko lehen urte hauetan, lehentasunez sustatu da Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak diruz lagundutako herritarren partaidetzako proiektuak dituzten eragile eta elkartearen parte-hartzea; betiere formatu malgua mantenduz, sarrerak eta irteerak ahalbidetzen dituen.

Foroari irekita eustea da asmoa, herritarren parte-hartzearekiko interesa partekatzen duten hainbat eragilek parte har dezaten. Eta, aldi berean, modu zainduan eta datozenei egiten zaien harreran arreta jarriz. Irekitasunaren eta egonkortasunaren arteko tentsioari eustea da erronka, Foroak bere bidean eta emaitzetan eboluzionatu ahal izan dezan

Nola funtzionatzen du

Elkarteen Foroak funtzionamendu-oinarri bat du, 2020ko abenduko lehen topaketan definitu zena, eta hura osatzen duten erakundeek berek sustatuta garatzen ari dena. Laburbilduz:

Edukiei dagokienez

- **Herritarren parte-hartzea da ardatz nagusia** eta Foroa osatzen dutenak batzen dituen. Eremu zabala, erronka zehatzagoetara ekartzen dena, Foru Aldundiaren eta Foroan parte hartzen duten elkarte eta eragileen beharren eta interesen arabera.
- Aurrekoaz gain, **elkartegintza aitortu, indartu eta balioestea da beste ardatzetako bat**, partaidetza-kultura sustatzeko egiten duen ekarpenagatik; arlo komunitarioan eta publikoan pertsonen lankidetzaren eta parte-hartze aktiboa errazten du.
- Gainera, **herritarren parte-hartzeari buruzko prestakuntza Foroaren jardueran zeharka txertatzen den elementua da**. Helburua herritarren parte-hartzean gaitzea da, hainbat modutan: ikastaroak edo prestakuntza-pilulak antolatuz eta jasoz, parte hartzen duten eragile eta elkarteetan dagoen ezagutza partekatuz, saioetan bertan herritarren parte-hartzearekin esperimendatuz...

Formari eta antolaketari dagokienez

- **Elkarteen Foroaren osoko bilkurak dira muina:**
 - Urtean zehar Foroaren 4-5 saio egiten dira.
 - Herritarren parte-hartzean inplikaturik dagoen eta interesa duen Gipuzkoako erakunde/elkarte orori irekitako saioak dira.
 - Urteko lehen saioan zehazten dira, Aldundiaren eta parte hartzen duten erakunde eta elkartearen artean, ekitaldirako helburuak eta lanaren oinarritzko eskema.
 - Hurrengo saioetan sakonago eta zehatzago lantzen dira lehenetsitako edukiak edo eremuak.
 - Eta urteko azken saioan egindakoaren balorazioa egiten da, espazioaren jarraitutasunerako ikaskuntzak ateratzeko helburuarekin.

Saio bakoitzaren diseinu zehatzaz talde eragile bat arduratzen da. Talde hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oineko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko lantaldeak eta Prometearen kanpoko laguntza-taldeak osatzen dute.

- **Osoko bilerak gaikako lantaldeekin osa daitezke**, landu beharreko edukien eta erronken arabera. Talde horiek premiaren arabera aktibatzen dira, zeregin argi batekin, eta parte-hartzaile talde txikiagoarekin haien eraginkortasuna zaintzeko.
- **Barne-komunikazioa errazteko** eta harremanetan egoteko *slack* plataforma bat gaituta daukagu; baina posta elektronikoa da oraindik ere erabiltzen den bide nagusia.



2

Foroaren jarduera 2023an

Parte hartu duten eragile eta pertsonak

Aurreko urteetako joerari eutsiz, aurten Elkarten Foroak honako hauek bildu ditu gune berean:

- Herritarren partaidetzatik eta herritarren partaidetzarako Ibilbidea, konpromisoa eta borondatea duten Gipuzkoako elkarte eta erakunde anitzak. Elkarte horiek hainbat helburutan oinarritzen dute bere jarduna: kultura-aniztasuna, gazteria, berrikuntza eta gizarte-ekonomia, euskara, elkartegintza eta komunitatearen sustapena, aniztasun funtzionala, artea eta kultura, ingurumena, etab.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua.

Topagune honek, parte-hartzea bultzatzeaz eta sakontzeaz gain, administrazioaren eta elkarten arteko ohiko harremanetatik haratago doazen dinamika horizontalak esperimintatzea ere bilatzen du, espazio partekatu malgua eraikiz, parte hartzen duten erakunde guztientzat eta batzen dituen helbururako interesgarria eta erabilgarria izango dena.

Zenbaki batzuk:

- **Guztira, Gipuzkoako 28 elkarte-erakundek** modu aktiboan parte hartu dute Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko taldearekin batera Elkarten Foroaren saio batzuetan edo guztietan. **2022an baino %33 gehiago da.**
- Aldi berean, eta sartu berriekin batera, **10-12 elkartek osatutako nukleo egonkor bat mantentzen da;** trakzio-eragileak dira eta iritsi berriei harrera egitea errazten dute.

- Pertsona eta bertaratze kopuruari dagokionez: 43 pertsona desberdin (25 emakume eta 18 gizon) bertaratu dira Foroaren topaketaren batera, eta **guztira 78 asistentzia** izan dira.
- Kopuru horretatik, elkarte talde txiki batek inplikazio eta dedikazio boluntario handiagoa izan du aktibatu diren **2 lantaldeetan**, Zerbitzuko taldeak lagunduta.



Jarraian, 2023an Elkarteen Foroari lotutako jardueretan noizbait parte hartu duten erakundeen eta pertsonen xehetasunak jasotzen dira.

Erakundea	Pertsona	1 saioa 23.01.10	2 saioa 23.03.10	3 saioa 23.05.19	4 saioa 23.10.10	Slack
Gipuzkoako gizarte-erakundeak eta elkarteak						
AGIJUPENS	Joxe Agustin		•			
	Txetxu	•				
Amarako Amarabai udalgintzarako lantaldea	Harkaitz				•	
Anaka Puiana auzo-elkartea	Txomin				•	
Arrats	Kotte			•		•
Bakeola - EDE Fundazioa eta Landetxa Auzo Elkarteak	Maider	•	•	•	•	•
BDSKoop	Dornaku			•	•	
Gipuzkoako Farmazilarien Elkargoa	Xabier				•	•
	Lorea	•	•			
Landarbaso abesbatza	Iñaki			•	•	
Dar-Dar gizarte ekimenezko kooperatiba	Asier	•	•		•	
	Iker	•				
Elkartu	Maialen	•	•	•	•	
Emigradas sin fronteras	Victor	•		•		
Eusko Ikaskuntza	Koro	•	•		•	
Haurralde Fundazioa	Andrea				•	
	Solmaz				•	
Teknum Fundazioa	Errukane		•			•
GEHITU	Lander				•	
Gipuzkoako Senideak y Zahartzaroa Zainduz Zestoa	Bea				•	
	Xanti				•	
Gizalde	Miren	•	•	•	•	•
I.M.M.E. Gipuzkoako emakume musulmanen integrazio eta ahalduntzerako elkarteak	Djamila			•		
Impact Hub	Xabier			•		•
KAEBNAI	Jorge				•	•
	Ainhoa				•	
Kalapie	Julen				•	•
Kukulaisi	June				•	
Labore Txingudi	Oihana				•	
Lleno de Naranjas	Imatxi	•	•	•		•
Lotura Giza Garapena	Nadia				•	•
Oinherri, herri hezitzaileak	Maite	•			•	
Politki	Maria	•		•	•	

Erakundea	Pertsona	1 saioa 23.01.10	2 saioa 23.03.10	3 saioa 23.05.19	4 saioa 23.10.10	Slack
SOS Arrazakeria	Imanol	•	•	•		•
	Nerea				•	
	Garazi				•	
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua						
	Mikel Pagola, zuzendaria	•	•	•	•	•
	Itziar Calvo, zerbitzuburua	•	•		•	
	Joxe Piñas, teknikaria	•	•	•	•	
	Olatz Dañobeitia, teknikaria	•	•			
	Itsaso Olaizola, teknikaria				•	
Errazteko kanpoko laguntza-taldea						
Prometea	Iciar	•	•	•	•	•
	Zorione	•	•	•	•	



Edukiak eta emaitzak: sintesia

2023. urte honetan, Elkarten Foroak une oro izan ditu gogoan lortu nahi dituen helburuak. Hona hemen helburuak, laburbilduta:

- Elkar ezagutzea.
- Gipuzkoako elkartegintza aitortzea, sozializatzea eta ikusaraztea.
- Herritarren parte-hartzeari buruz hausnartzea eta sakontzea.
- Herritarren parte-hartzearekin lotutako prestakuntza-beharrak identifikatzea eta erantzun partekatua ematea.
- Antzeko helburuekin lan egin behar duten beste espazio batzuekin sinergiak bilatzea –Aldundiaren barruan eta kanpoan–.

Horiei guztiei ekarpena egiteko:

- **Elkarten Foroa 4 aldiz bildu da osoko bilkuran:** 2023ko otsailaren 10ean, martxoaren 10ean, maiatzaren 19an eta urriaren 10ean.
- **Gainera, aurten 2 lantalde aktibatu dira,** 2022an lehenetsitako gaiei erantzuten zieten zeregin zehatzei lotutakoak.
 - Horietako bat Elkarten Forotik bertatik sortu da –zenbait elkarte eta Diputazioaren Zerbitzuko taldeak osatutako talde txiki eta operatiboa–, udalei zuzendutako dekalogo, dokumentu edo antzeko bat sortzeko, elkarteak kontuan har, balora eta indar ditzaten.
 - Eta bestea Zerbitzutik aktibatu da, eta bertan parte hartu dute, beste erakunde batzuek gain, Foroaren parte diren elkarte batzuek, helburu honekin: elkarteek herritarren partaidetzarako dirulaguntzetarako aurkezten dituzten proiektuei laguntzeko eta jarraipena egiteko sistema bat diseinatzea.



Landutako edukiei eta emaitza zehatzei buruz:


- Elkartearen Foroaren jarduera, batez ere, taldeak 2022ko urriaren 7ko saioan proposatu eta lehenetsitako ekimen honetan oinarritu da:

"Udalei zuzendutako dekalogo, dokumentu edo antzeko bat sortzea, elkarteak kontuan har, balora eta indar ditzaten".

Osoko bilkuran landutako oinarrien gainean, horretarako sortutako lantaldea arduratu da edukiak emaitza batean islatzeaz, PREST dokumentuan. Hemen kontsulta daiteke: [PREST dokumentua](#)

Era berean, 2023ko irailean, Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak testuaren berri eman du lurraldeko udaletara egiten ari den bisitetan. Eta zabalkunde hori osatzeko, urriaren 19an eta 21ean Foroan parte hartzen duten elkarteetako kideek dokumentua zuzenean eta formatu teatralizatuan aurkeztu zuten, lurraldeko udal handi, ertain eta txikiekin herritarren parte-hartzeari buruz egin ziren jardunaldietan.

PREST:
ELKARTEAK ETA UDALAK
ELKARLANEAN



01 Lankidetzarako deia

02 Elkar ezagutzen al dugu?

03 Zer bide egin genezake datozen urteetan?

- Foroa osatzen duten elkarte batzuek beste lantalde batean parte hartu dute. Kasu honetan, Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak bultzatu du, lehenetsitako beste gai bati heltzeko:

Elkarreek herritarren partaidetzarako dirulaguntzarako aurkezten dituzten proiektuei laguntzeko eta jarraipena egiteko sistema bat diseinatzea.

Horren ondorioz, honako hauek lortu dira: egungo dirulaguntzen ildo hobetzeko proposamenak; Elkarteen Foroan bertan landu daitezkeen prestakuntza-proposamenak identifikatzea; eta dirulaguntzen lerrora aurkezten diren proiektuen jarraipena egiteko proposamen metodologiko bat.

- Gainera, Foroaren osoko bilkuretan:
 - Parte hartu duten elkarteen artean eta elkarteen eta Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren artean **ezagutza handiago ahalbidetu duten dinamikak** egin ditugu. Uneoro zaindu dira sarrerak eta irteerak, bai eta espazio ireki eta dinamiko batean hartutako beharrezko irteerak ere.
 - **Prestakuntza-pilula zehatzak** sartu dira, honako hauen inguruan: prototipoa ideazioa islatzeko modu gisa –kasu honetan, Dekalogoaren erronkari lotuta–; eta prozesu eta proiektu parte-hartzaile orotan kontuan hartu beharreko inklusio-irizpideak.
 - **Elkarteen Foroa beste gune batzuekin lotzeko aukerei** erreparatu zaie. Denbora gorde dugu parte hartzen duten erakunde eta elkarteekiko informazio interesgarria partekatzeko.
 - Denbora gorde dugu parte hartzen duten erakunde eta elkarteek **informazio interesgarria partekatzeko.**

Zehatzago, gako batzuk

Jarraian, 2023an Elkartearen Foroari lotutako jarduera zehazten da, honako hauei dagokienez:

- A. Elkartearen Foroaren osoko bilera irekiak
- B. Barne-koordinazioa
- C. Etengabeko komunikazioa: *slack* plataforma

A. FOROAREN OSOKO BILKURA IREKIAK

2023an 4 osoko bilkura egin dira aurrez aurre.

Lehentasuna eman zaio presentziasunari, parte hartzen duten erakundeek topaketa- eta ezagutza-guneari ematen dioten garrantziagatik; baita deialdi irekia beti egiteak, talde dinamikoa eta malgua izateak, saio bakoitzean harrerakoei mimo eta arreta eskaintzea eskatzen duelako ere.

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua, Prometea kanpoko taldearekin batera, saio bakoitzaren diseinuaz arduratu da, Foroan adostutako urteko helburuetatik eta saioaren eta saioaren arteko aurrerapen eta beharretatik abiatuta.

Aurten, aurrekoetan ez bezala, Elkartearen Foroak sakontasun handiagoz lan egin du ekimen zehatzetan, eta horrek saioaren eta saioaren arteko tentsioari eustea ekarri du, hasitako zereginei jarraipena emateko. **Topaketen batez besteko balorazioa 10etik 8,7koa izan da.**

Saio bakoitza Prometea taldeak erraztu du -hitzez eta grafikoki-, eta Aldundiak eskainitako aldi bereko itzulpen-zerbitzua ere eman da. Gainera, bilera bakoitza txosten hau osatzen duten emaitzen akta-dokumentu batean dokumentatuta geratu da.

Hona hemen topaketa bakoitzaren laburpena:

1 topaketa

Ostirala, 2023ko otsailaren 10a, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburuak-gaiak

- 2023an elkarrekin lantzea adostu genuen proposamenari heltzea eta lehen ariketa kolektiboa egitea: prototipoa.
 - "Udalei zuzendutako dekalogo, dokumentua edo antzekoa, elkarteak kontuan har, balora eta indar ditzaten".
 - Zer esan nahi diegu udalei? Zein eduki transmititu nahi dugu?
 - Eta nola? Zer forma har dezake mezu horrek?
- Foroaren plangintzaren lehenengo oinarriak finkatzea urteari begira.
- Informazio interesgarria partekatzea.

Asistentzia

- 19 pertsona (12 emakume eta 7 gizon), 13 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisa; eta erraztaile taldea.

Emitza nagusiak

- Prototipo desberdinak, dekalogoaren, dokumentuaren edo antzekoaren oinarri partekatua eraikitzen hasteko.
- Lortu beharreko helburuak eta Foroaren urteko oinarrizko plangintza, honako hauei dagokienez:
 - Landu beharreko edukiak.
 - Prestakuntzaren ikuspegia.
 - Saioen metodologia eta egutegia, eta beste espazio batzuekiko konexioak.

Saioaren balorazioa

- Bidalitako galdetegiaren arabera **9,22** (0tik 10era bitarteko eskalan)

2 topaketa

Ostirala, 2023ko martxoaren 10a, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburuak-gaiak

- Aurreko saioan lantzen hasi ginen "Dekalogo" elkarrekin diseinatzeko prozesuan aurrera egitea, behin betiko proposamenaren oinarriak edukian eta forman zehazteko.
- Informazio interesgarria partekatzea.

Asistentzia

- 16 pertsona (11 emakume eta 5 gizon), 11 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisa; eta erraztaile taldea.

Emaitza nagusiak

- Dekalogoaren edo antzeko zerbaiten "Zer kontatu nahi dugun" atalak barnebildu behar dituen funtsezko edukiak.

Saioaren balorazioa

- Bidalitako galdetegiaren arabera **7,57** (0tik 10era bitarteko eskalan)
-

3 topaketa

Ostirala, 2023ko maiatzaren 19a, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- "Dekalogo" elkarrekin diseinatzeko prozesua amaitzea, behin betiko proposamenaren oinarriak zehazteko:
 - Kontakizunaren oinarriak.
 - Formarako hurbilketa bat.
 - Gauzatzeko urratsak: nork eta nola, hura egiteko lantalde operatibo bat aktibatzeke.
- Pilula informatibo gisa, aurrekoari txertatzeko inklusio- eta aniztasun-irizpideak lantzea, Elkartu eta Dar-Dar elkarten ekarpenetik eta ezagutzatik abiatuta.
- Foroaren antzeko beste espazio batzuekin izan daitezkeen loturak aztertzea. Zehazki, Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritzari lotutako espazioak.
- Informazio interesgarria partekatzea.
- Ziklo politikoa ixtea eta egindako lan kolektiboa aitortzea eta eskertzea.

Asistentzia

- 16 pertsona (9 emakume eta 7 gizon), 13 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari gisa; eta erraztaile taldea.

Eraitza nagusiak

- Dekalogoaren oinarri zehaztua, partekatua eta adostua -edukia eta forma-, eta hura gauzatzeko eman beharreko hurrengo urratsak zehaztea: lantaldea aktibatzea.
- Ziklo politikokoaren itxiera informala.

Saioaren balorazioa

- Bidalitako galdetegiaren arabera **9,63** (0tik 10era bitarteko eskalan)
-

4 topaketa

Asteartea, 2023ko urriaren 10a, 10:00-13:00; aurrez aurreko saioa

Landutako helburu-gaiak

- Ziklo politiko berri bat irekitzea.
- Foroaren historia aurkeztea eta harrera ona egitea, elkarte berrien talde esanguratsu baten parte-hartzearen aurrean.
- Elkartearen Foroaren azken topaketaz geroztik izandako aurrerapenak eta emaitzak partekatzea; nagusiki urrats horiek helburu hauetarako aktibatutako 2 lantaldeek eman dituzte:
 - PREST dokumentua.
 - Dirulaguntza lerrora aurkeztutako proiektuei laguntzeko eta haien jarraipena egiteko sistema.
- Informazio interesgarria partekatzea.

Asistentzia

- 27 pertsona (17 emakume eta 10 gizon), 21 elkarteren eta Foru Aldundiko Zerbitzuaren ordezkari; eta erraztaile taldea.

Emaitza nagusiak

- "Itxiera" eta Foroak urtean zehar jorratu dituen zeregin nagusien balorazioa, parte hartu duen taldea zainduz.

Saioaren balorazioa

- Bidalitako galdetegiaren arabera **8,67** (0tik 10era bitarteko eskalan)
-

B. BARNE KOORDINAZIOA

Elkarteen Foroa bultzatu duen erakundea den aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak Prometearen taldearen kanpoko laguntza izan du, honako zeregin hauetan laguntza emateko:

- Elkarteen Foroaren urteko ibilbidea planifikatzea.
- Elkarteen Foroaren aurrez aurreko topaketen baterako diseinua, erraztasuna eta dokumentazioa.
- *Slack* plataformaren dinamizazioa.

Prozesua behar bezala garatzeko, bi taldeak –Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua eta Prometea– lankidetzan aritu dira, etengabeko koordinazioari eutsiz.

Zehazki, **koordinaziorako 4 barne-bilera** egin dira -guztiak online formatuan, eraginkortasuna helburu –, data hauetan:

- Urtarrilaren 25a
- Martxoaren 1a
- Apirilaren 26a
- Irailaren 13a

Gainera, posta elektronikoa eta telefono bidez etengabeko komunikazioa mantendu da.

Koordinazioa elkarreetara ere hedatu da: Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak komunikazio arina izan du Foroa osatzen duten erakunde eta elkarteekin urtean zehar, honako hauen bitartez:

- Komunikazio formalak: Foroaren eta lantaldeen deialdiak, posta elektronikoaren bidez.
- Komunikazio informalak: telefono-deiak, hala eskatu duten unean uneko gaiak alderatzeko, edo elkarrekin egiten joan garen ibilbidea baloratzeko.
- Aurkezpen- eta harrera-jakinazpenak, aurten lehen aldiz Forora hurbildu diren elkartei.

C. ETENGABEKO KOMUNIKAZIOA: SLACK PLATAFORMA

Elkarteen Foroaren *slack* plataforma 2021eko otsailaren 18an sortu zen: <https://gfaelkarteenf-ssk5670.slack.com/ssb/redirect>.

2024ko urtarrilean eguneratutako datuen arabera:

***slack* plataforma**

Erabiltzaileak

- 35 pertsona edo erakunde parte-hartzaile

Edukiak

- Elkarrizketarako 4 hari ditu, eta horiek foroan edo foroko kideek sortutako edukiekin elikatzen dira aldian-aldian:
 - #elkarteenforokosaioak-sesionedelforo
 - #elkarteenberriak-temasdenuestrasasociaciones
 - #orokorra-general
 - #trebakuntza-formación

Laguntza-materiala

- Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak erabilerako mini-gida praktikoa egin zuen 2021ean. Gida hori hainbat aldiz erantsi zaio Elkarteen Forotik bidaltzen den dokumentazioari, plataforman parte hartzerako gonbidatuz.

2023ko jarduera

- Jarduera mugatua izan da: Foroaren osoko bilkuretarako deialdi guztiak *slack* bidez jakinarazi dira. Eta elkarte batzuek plataforma baliatu dute deialdi propioak edo esteka interesgarriak partekatzeko.
- Oraingoan, plataforma oso modu mugatuan ari da erabiltzen hasierako helbururako, hau da, Foroan parte hartzen duten erakundeen artean elkarrizketak eta komunikazio arina mantentzeko, saioen artean.
- Aldi berean, eta Foroan bertan haren mantentzeari edo alternatiba posibleei buruz egindako galderari erantzunez, denbora ematea erabaki da, indar handiagoa hartzen duen ala ez ikusteko.

3

Jarraipena 2024an

2023. urtea ixteko

Balorazio-begiradatik, ideia batzuk:

- Elkarteen Foroak urte osoan garatu du bere jarduera, eta naturaltasunez egokitu eta integratu du 2023ko maiatzeko legegintzaldi-aldaketa.
- Ekitaldi honetan egindako jauzi kualitatiboa eta apustua hainbat gaitan islatu da:

Lan estrategikoa eta begirada operatiboagoa bateratzeko ahalegina.

Arreta gune honen ardatzean mantenduta -herritarren parte-hartzea-, eta parte hartzen duten erakunde eta elkarteentzat zentzua izango duen zerbait lantzeko borondatean, aurten lanaren zati handi bat zerbait zehatza diseinatzera eta forma ematera bideratzea erabaki da -PREST-dokumentua.

Foroaren osoko bilkurak lantaldeekin konbinatzea.

Lankidetza eta horizontaltasun handiagoko beste lan-modu batzuetan baterako sorkuntza eta esperimentazioa errazteko asmoz, 2 lantaldeen aktibazioak elkarte batzuen inplikazio handiagoa bultzatu du, beste erakunde eta elkarte batzuek konfiantza eta irekitasuna eman duten testuinguru batean. Oraingoz, Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren laguntza funtsezkoa eta beharrezkoa da taldeen ibilbidean.

Parte hartzen duten elkarte eta erakundeen ezagutza, esperientzia eta jakinduriari balioa ematea.

Bai barneko prestakuntza-pilulak partekatzeko, bai jakituria hori Foroan landu diren gaietan islatzeko.

Foroaren sarrerak eta irteerak zaintzea, ekosistema ireki eta dinamiko gisa.

Aurreko urteekin alderatuta, 2023an aldaketa gehiago izan dira Foroan parte hartu duten elkarteetan. Ekosistema bizi horrek aniztasuna eta aberastasuna dakartza, eta, aldi berean, harrerak zaintzea, saioetan testuingurua definitzeko denbora ematea eta erakunde egonkorrenen aldetik nolabaiteko pazientzia izatea eskatzen du.

Ildo horretan, Zerbitzuak "Harrera-protokoloa" prestatu du, lehen aldiz bertaraten diren elkarteei sarrera errazteko. Esteka honetan kontsulta daiteke: [Harrera-protokoloa](#).

Foroak beste espazio batzuekin izan ditzakeen loturei arreta jartzen hastea.

Baita parte hartzen duten elkarten berariazko eskaeratik ere, sinergia posibleak ikusten baitituzte.

Eta 2024an jarraitzeko

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren eta parte hartzen duten elkarten konpromisoarekin, **Gipuzkoako Elkarten Foroak bere bidea jarraituko du 2024an.**

2024ko otsailean, urteko lehen topaketan, asmoa honakoa da:

- Elkarten Foroak 2020an abian jarri zenetik izan duen ibilbidea partekatzea: nortzuk egon garen, zertarako eta zertan, eta orain arte zer lortu den -emaitzak-.
- Horrekin, eta daukagunetik abiatuta, proiektio txiki bat egitea:
 - Datozen 3-4 urteetan, norantz egin nahi dugu aurrera?
 - Foro gisa, zer gustatuko litzaiguke lortzea?
 - Eta epe laburragora: zer lortu nahi dugu eta nola lan egin nahi dugu 2024an Elkarten Foroan?

Hautu estrategiko partekatu hori izango da Gipuzkoako Elkarten Foroaren urte berri bati forma emateko oinarria, herritarren parte-hartzeari eta lurraldean elkarlan gehiago egiteko moduei egiten dien ekarpenean jauzi kualitatibo bat emateko asmoarekin.

Eskerrik asko, guztioi!



Jarrai dezagun!